

## ZEHARKALDIA-ZIRKUKO PIRINIOAK PROIEKTU EUROPARRERAKO HAUTATUTAKO 20 ARTISTEK BOST EGUNETAN ZEHAN EGINGO DUTE LAN HIRIKO HAINBAT TALDEREKIN

- Bitartekaritza Laborategia ikuspegi berritzaileko topaketa teoriko eta praktikoa izango da, eta martxoaren 15etik 19ra egingo da.
- Helburua da zirkuaren diziplina hirira hurbiltzea eta Pirinioetako mugaz gaindiko eskualdeetan zirku garaikidearen sorkuntza eta hedapena sustatzea, zirku-artistak balioesteko ekintzen bidez, elkartasun- eta trebakuntza-harremanak sortuz eta indartuz.
- Hautatutako 20 artistek eta kolektiboek hiriko hiru talderekin lan egingo dute: Bilboko Koral Elkarteko Euskeria abesbatza; Nevipen, ijito herria integratzeko elkarte; eta ADEMBI, Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarte
- Martxoaren 18an, Sala Rekalden, "Agustín Ibarrola, Naturalmente" erakusketarekin lotutako hitzaldia ospatuko da. Doan sartu ahal izango da, erreserba eginda [esteka honetan](#).

(Bilbon, 2021eko martxoaren 15ean).- Bilboko Udalak parte hartzen duen Zeharkaldia-Zirkuko Pirinioak proiektu europarreko bitartekaritza laborategian parte hartzeko hautatutako [20 artista eta taldeek](#) gaur emango diote hasiera prestakuntza teoriko-praktikoari urian.

Horien artean daude Nerea Lorente (Hortzmuga), Gloria Peón (LaGlo zirko danza), Maialen Cuevas (Malas Compañías), Endika Salazar (Cía Dikothomia), Amaia Vicente, Iru (Cía La Pez) eta Aratxo Angulo. Europako gainerako parte-hartzaileekin batera, taldean lan egingo dute martxoaren 19ra arte, zirkuaren diziplina hirira hurbiltzeko eta zirku garaikidearen sorkuntza eta hedapena sustatzeko, zirkuko artistak babesteko ekintzen bidez, elkartasun- eta trebakuntza-harremanak sortuz eta sendotuz. Gainera, proiektuak bitartekaritza bultzatzeaz gain, zirkuaren diziplinartekotasuna sustatu nahi du, zabaldu eta pertsona eta kolektiboengana iristeko.

Hala, hautatutako artistek hiriko hiru talderekin lan egingo dute: Bilboko Koral Elkarteko [Euskeria abesbatza](#); [NEVIPEN](#), ijito herria integratzeko elkarte; eta [ADEMBI](#) Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarte

Martxoaren 18an, ostegunean, 18:00etatik 20:00etara, bitartekaritza laborategi horren esku-hartze artistikoa izango da, Sala Rekalderekin lotutako proposamen batekin eta "Agustín Ibarrola, Naturalmente" erakusketarekin. Zirkuaren eta eskulturaren, pinturaren eta hitzaren arteko elkarrizketa izango du ardatz. Sarrera doakoa izango da alde zuzenetik izena emanda, talde txiki batentzat, eta kultura segurua bermatzeko

osasun-protokolo guztiak mantenduko dira. Gonbidapenak [esteka honetan](#) erreserba daitezke.

## **ZEHARKALDIA – ZIRKUKO PIRINIOAK**

Zeharkaldia – Zirkuko Pirinioak lankidetzaproiektu bat da. Europar Batasunak finantzatzen du % 65ean FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsaren bidez eta Interreg V-A España-Francia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2014-2020).

Ekimena zirkuko arteetarako mugaz gaindiko lankidetzak ekimenaren barruan kokatzen da eta zortzi bazkidek osatzen dute, Pirinioetako alde bietako entitate publiko eta pribatuak. Bazkideen artean daude unibertsitateak (Tolosako Jean Jaurés), entseatzeko eta sortzeko lekuak eta fabrikak (adibidez, La Grainerie, Central del Circ), hedapenerako espazioak, eta alor publikoko entitateak, adibidez Bilboko Udala, urtero [Bilboko Kalealdia kaleko arteen nazioarteko jaialdia](#) eta [Zirkualde zirku-jaialdia](#) antolatzen dituenak, besteak beste

## **REDES SOCIALES:**

- Bilbao Udala: [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- Bilbao Kultura: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

[www.bilbaokultura.eus](http://www.bilbaokultura.eus)

## EL GRUPO DE 20 ARTISTAS SELECCIONADO PARA EL PROYECTO EUROPEO TRAVESÍA-PIRINEOS DE CIRCO TRABAJARÁ ESTA SEMANA CON DIFERENTES COLECTIVOS DE LA VILLA

- El Laboratorio de Mediación será un encuentro teórico y práctico con un enfoque innovador que se celebrará desde hoy, 15 de marzo, al viernes, 19 de marzo.

- El objetivo es acercar la disciplina del circo a la ciudad y promover la creación y la difusión del circo contemporáneo en las regiones transfronterizas de los Pirineos, mediante acciones que pongan en valor a los y las artistas circenses creando y reforzando relaciones de solidaridad y capacitación.

- Los y las 20 artistas y colectivos seleccionados trabajarán con tres agrupaciones de la ciudad: Coro Euskaria de la Sociedad Coral de Bilbao; NEVIPEN, Asociación para la integración del pueblo gitano; y ADEMBI, Asociación de Esclerosis Múltiple de Bizkaia.

- El jueves 18 tendrá lugar en la Sala Rekalde una intervención vinculada con la exposición "Agustín Ibarrola, Naturalmente". Será de acceso gratuito con reserva este [enlace](#).

(Bilbao, a 15 de marzo de 2021). Los [20 artistas y colectivos seleccionados](#) para participar en el Laboratorio de Mediación del proyecto europeo Travesía-Pirineos de Circo, en el que participa el Ayuntamiento de Bilbao, darán comienzo a su formación teórico – práctica hoy en la Villa.

Entre ellos se encuentran las y los artistas locales Nerea Lorente, de Hortzmuga; Gloria Peón, de LaGlo Zirko Danza; Maialen Cuevas, de Malas Compañías; Endika Salazar, de Cía Dikothomia; Amaia Vicente; Iru, de Cía La Pez; y Aratxo Angulo. Junto al resto de participantes europeos, trabajarán en equipo hasta el 19 de marzo con el objetivo acercar la disciplina del circo a la ciudad y promover la creación y la difusión del circo contemporáneo mediante acciones orientadas a secundar a artistas circenses creando y reforzando relaciones de solidaridad y capacitación. Además, el proyecto busca no sólo impulsar la mediación sino fomentar la interdisciplinariedad del circo para así expandirse y llegar a las personas y colectivos.

De esta manera, las y los artistas seleccionadas trabajarán con tres colectivos de la ciudad: el [Coro Euskaria](#) de la Coral de Bilbao, [NEVIPEN](#) - Asociación para la integración del pueblo gitano y [ADEMBI](#)-Asociación de Esclerosis Múltiple de Bizkaia.

Además, el jueves 18 de marzo de 18:00 a 20:00 horas, tendrá lugar una intervención artística de este laboratorio de mediación con una propuesta vinculada con Sala

Rekalde y su exposición "Agustín Ibarrola, Naturalmente". Ésta se centrará en el diálogo entre circo y escultura, pintura y palabra. La entrada será gratuita previa inscripción, para un grupo reducido manteniendo todos los protocolos sanitarios para garantizar una cultura segura. Pueden reservarse en [este enlace](#).

## **TRAVESÍA - PIRINEOS DE CIRCO**

Travesía - Pirineos de circo es un proyecto de cooperación co-financiado por la Unión europea en un 65% por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER) a través del Programa Interreg V-A España-Francia-Andorra (POCTEFA 2014-2020).

La iniciativa se enmarca dentro de la colaboración transfronteriza para las artes del circo y está compuesta por ocho socios que son entidades públicas y privadas de ambos lados de los Pirineos. Entre los socios figuran universidades como Jean Jaurés de Toulouse, lugares y fábricas de ensayo y creación como La Grainerie o Central del Circ, así como espacios de difusión y entidades del ámbito público, como es el caso del Ayuntamiento de Bilbao, que anualmente organiza [Bilboko Kalealdia, Festival de Teatro y las Artes de Calle](#), y [Zirkualde, festival temático sobre artes circenses](#).

### **REDES SOCIALES:**

- Bilbao Udala: [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- Bilbao Kultura: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- Bilboko Kalealdia: [FACEBOOK](#)

[bilbokokalealdia.eus](http://bilbokokalealdia.eus)

[www.bilbaokultura.eus](http://www.bilbaokultura.eus)